

# ALTZA! PORRA



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G.: SS-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2002ko maiatza-ekaina / 6 zenbakia

Habilitazio kurtsoak direla eta

Disko berriak

Trikitixa egunak eta omenaldia

Ikastaroak

Jaialdia eta txapelketa

Rufino Arrolari liburua

Bitarte zendu zen

## HABILITAZIO KURTSOAK DIRELA ETA


Euskal Herriko Trikitixa Elkartea habilitazio kurtsoetatik at gelditu da. Dakizuen moduan, bere burua aurkeztu zuen habilitazio kurtso horiek diseinatu eta aurrera eramateko. Honen arrazoia, orain arte antolatu diren kurtsoen injustizi eta organizazio eskasa izan dira.

Lehenengo kurtso haiek 1995ean hasi ziren. Trikitixa Elkartea habilitazio hoiengatik jakin nahian informazio bila ihardun zen. Eta hau ondorioztatu zuen: instrumentu autoktonoak musika eskoletan presentzia handia zutela, baina instrumentu hauen irakaslearen gehiengoa titulu ofizialik gabea zela. Buruhauste honen aurrean zer egin behar zuten, instrumentua reglatu eta irakaslearen titulua bermatu edo habilitazio kurtsoekin konpondu. Bigarrena merkeagoa zen eta denboraz motzagoa. Baina akats nabarmen eta larriak egin zituzten orokorrean. Protestak egon ziren, egunkarietan ere.

Geroztik lau urteko hutsunea egon da habilitazio kurtsoak eman gabe. Baina 2001-2002 kurtsoan berriz antolatu dira. Akats berdinak egin ditu deialdi horrek ordea, eta Trikitixa Elkartek pentsatu zuen komenigarri izango zela proiektua bere gain hartzea. Trikitixa Elkartek programa oso bat aurkeztu zuen baina, Jaurlaritzak guri ezer esan aurretik, kanpotik jakin dugu ez dutela gure eskaintza onartu. Beraz, Trikitixa Elkartek ez du saiakera berri gehiagorik egingo bide horretan.



# DISKO BERRIAK



## ALAITZ ETA MAIDER: "Auskalo"

"Auskalo" izenez bataiatu dute beren hirugarren diskoa ALAITZ eta MAIDERREK. Angel Unzuren laguntza izan dute ekoizpenean eta beraien hitzetan oso ukitu interesgarria eman dio. Aurreko bi diskoekin alderatuz azken honek FOLK kutsu gehiago duela diote beraiek.

Agenda: Ekainak 21; Zizur- nagusia  
Ekainak 22; Sondika  
Ekainak 23; Galdakao  
Ekainak 28; Llabursi (Pirineotan)

## AURTEN GRABATUKO DIRENAK

**Iker Goenagak** aurtengo uztailaren 9an bere bigarren diskoa grabatzeari ekingo dio. Elkarlanean zigitupean ateratzeko asmoa du eta Jean Phocas teknikaria izango du aldamenean.

**Tapia eta Leturiak** aurtengo abuztuan grabatuko dute beren 9. diskoa. Zuzeneko diskoa izango da. Kantu berriez gain kantu zahar batzuen bertsio berriak entzun ahalko dira disko horretan.

**Iñaki Eizmendi "Laja"** azkoitiar trikitilari ezaguna bere lan berria grabatzen ari da egunotan Elkar musika-etxeko estudioan. Juan Carlos Perez da produkzioaren arduraduna eta datorren udazkenean kaleratuko da.

# JAIALDIA ETA TXAPELKETA

Aurtengo Azaroak 30ean Trikitixa Elkarteak Jaialdi bat antolatzeko asmoa du Kursaal-ean, kanpoko eta bertako trikitilariekin osatua egongo dena.

2003. urtean antolatuko da Euskal Herriko Trikitixa **Txapelketa Nagusia**. Talde finko bat dabil honen antolaketan eta jadanik aurre diseinu bat egina dute. Herrialdeetako kanporaketak udaberrian izango dira eta hortik pasa beharko dute parte hartzaile guztiek semifinaletako txandara pasatzeko. Prentsaurreko bat egingo da honen berri zehatza emateko.

# RUFINO ARROLARI LIBURUA

Soinuaren Liburutegia sailaren 3.alea **Rufino Arrola** "Andrakasko Errementaria"-ri buruzkoa izango da. **Xabier Amuriza** bertsolariak hartu du bere gain lan hau, berak ongi asko ezagutu zuen gainera Rufino eta pozik hartu du enkargua. Liburu-Cd-a Durangoko azokan aurkezteko asmoa dugu.



# TRIKITIXA EGUNAK ETA OMENALDIA



## IKASTAROAK

Aurtengo udazkenean lehengo urteko ildoari jarraituz elkarteak ikastaroak antolatuko ditu. Oraingoz aurre ikusiak dauden ikastaroak hauek dira:

- Partituren edizioa ordenadore bitartez: Encore eta Finale
- Soinu diatonikoa beste instrumentuekin harremanetan
- Irakasleen prestakuntza

Martxoaren 24an burutu zen **Xanti Zabalar**i egin zitzaion **omenaldia**, giro ederra izan genuen eta herritar eta trikitilari asko bildu zen bertara. Pozik ikusi genuen Xanti eta bere ehun urterekin panderoa eskuan zuela egun guztia.

Apirilaren 21ean ospatu zen **Euskal Herriko Trikitixa Eguna Zamudion**, 1.300 bat pertsona bildu ziren bertan. Antolatzaileak pozik zeuden Trikitixa Egunean bildutako jendearekin eta Trikitixa Eskolek egin zieten harreraz.

**Nafarroako Trikitixa Eguna Bianan** ospatu zen Maiatzaren 19an. 300 bat lagun bildu ziren bazkaritan eta 20 trikitixa eskolatako ikasleek parte hartu zuten. Giro ederra izan zuten eta arratsaldeko erromeriarekin bukaera eman zitzaion.

## BITARTE ZENDU ZEN



Joxe Etxabe Udabe "**Bittarte**" soinu-jolea aurtengo apirilaren 17 zendu zen Zumaian 88 urte zituela. 16-17 urterekin Antton Baltzola Zestuarrekin ikasi zuen. Azken urteetan Patxi eta Miel Iturbide izan zituen alboan pandero jotzaile, eta haien aurretik Auntxa, Mardu zaharra eta Otolarekin makina bat herritako jai eta erromeriak alaitu zituen.



